



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2023KO OTSAILA

Otsaila lehorra edo oso lehorra izan zen. Batez besteko tenperatura kostaldean ohikoa izan zen, barnealdean, berriz, hotza. Muturreko egoerei dagokienez, hilabete lasaia izan zen. 21 abisu hori igorri ziren, horietatik 12 izotzagatik. Tenperatura hotza izan zen abisuak igortzeko kausa nagusia, konfigurazio sinoptiko antiziklonikoa gailendu zelako. Horrez gain, bi elur-gertaera izan ziren, bat hilaren 23an (kota ertainetan), bestea hilaren 27an (kota baxuetan), baina elurra urria izan zen orokorrean.

Prezipitazioa

Otsaila lehorra edo oso lehorra izan zen. Kostaldean eta Arabako Lautadaren mendebaldean izan ezik, gainerako tokietan ohikoa denaren erdia baino gutxiago pilatu zen.

Banaketa espazialari so eginez, kostaldean egin zuen euri gehien, baina ez ziren 90 mm baino gehiago pilatu inon (Eskas 87.4 mm, Almike 86.8 mm, Miramon 79.6 mm, Oiartzun 76.6 mm, Muxika 74.9 mm). Arabako hegoaldean egin zuen euri gutxien eta zenbait estaziotan 20 mm baino gutxiago pilatu ziren (Paganos 8.5 mm, Kanpezu 10.1 mm, Tobillas 13.9 mm, Moreda 14.2 mm, Espejo 18.6 mm).

Kalifikazio lehorrarekin bat eginez, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa dena baino askoz txikiagoa izan zen lurralde osoan. Hiruzpalau euri-egun izan ziren orokorrean, Arabako hegoaldean bat bakarrik. Hilaren 1ean eta 7an hantemenka euria egin arren, hilaren 21era arte ateri eutsi zion orokorrean.

Hilaren 22an euritara jo zuen azkenean. Ipar-mendebaldean euria ugari egin zuen egun horretan, hilaren 23an oso ugari (≥ 30 mm) ia Kantauri isurialde osoan. Kostaldean 60 mm inguru pilatu ziren, batez ere ekialdean (Miramon 75.5 mm, Oiartzun 61.8 mm, Berriatua 59.9 mm, Altzola 57 mm, Lasarte 55 mm). Horrez gain, goizaldean elur-kota jaitsi eta gainerako orduetan 500 m inguruan egon zen. Gasteizen elurra egin zuen, baita barnealdeko beste herri batzuetan ere, baina elurra ez zen ugaria izan.

Hilaren 27an elur-kota itsas-mailaraino jaitsi zen, Mediterraneo itsasoaren mendebaldean kokatutako *Juliette* depresioak bultzatutako aire-masa polar kontinentalaren laguntzaz. Kostaldeko zenbait lekutan zuritu zuen, esate baterako Kontxako hondartzan, Donostian. Ipar-haizeak gogor jo zuen egun horretan eta horregatik era irregularrean pilatu zen elurra. Elur-lodierak ez ziren handiak izan orokorrean; aipagarrienak, isurien banalerroaren ekialdean behatutakoak (Ilarduia 8.8 mm, Urkulu 8.5 mm, Zegama 4.4 mm). Hilaren 28an ere elur txikia egin zuen noizbehinka, kota altuagotan.

**Taula 1: Azken urteetan otsailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	55.1	40.9	91.5	31.7	36.1	238.8	78.8	277	286.6	92.6
Lasarte	60.3	59.1	117.4	71.6	75.5	308.2	92.6	305.2	351.2	169.6
Arrasate	52.6	53.1	94.1	32.5	65.5	317.9	145.2	378.1	463.1	147
Abetxuko	32.4	15.7	55.6	7.2	49.4	96.5	54.1	176.4	194.5	85.5
Paganos	8.5	4.3	31.7	5.4	31.1	22.6	33.5	141.2	91.9	32.4

Tenperatura

Otsaileko batez besteko tenperatura kostaldean ohikoa izan zen eta barnealdean hotza, Arabako Errioxan oso hotza. Kostaldeko batez besteko tenperatura 9 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadan 4 °C-ren bueltakoa, hau da, 1981-2010 denboraldi normalaren batezbestekoa baino 0.6 °C baxuagoa. Mediterraneo isurialdeko zenbait tokitan anomalia negatiboa handiagoa izan zen, 1 °C ingurukoa, kostaldeko anomalia 0 °C-tik gertu egon zen. Mende honetako beste otsailekin alderatuz, erdiko postuetan dago, 2012ko edo 2005eko otsail oso hotzetatik urrun.

Eguneroko tenperaturaren bilakaeran, maximoek eta minimoek jokaera ezberdina izan zuten, hilaren 22ra arte behintzat. Tenperatura maximoak ohikoak edo beroagoak izan ziren, minimoak, aldiz, ohikoak edo hotzagoak. Horregatik, egun bakoitzean tenperatura minimo eta maximoen arteko aldea handia izan zen. Mediterraneo isurialdean (Arabako Errioxan izan ezik) minimoen batezbestekoa negatiboa izan zen (Espejo -2.2 °C, Salvatierra -1.9 °C, Otxandio -1.4 °C). Presio altuak izan ziren honen arrazoi nagusia, gaueko irradiazioaren ondorioz izotza egiten zuelako. Hilaren 23tik aurrera blokeo antiziklonikoa hautsi egin zen eta iparraldeko adbekzioaren pean bai minimoak bai maximoak ohikoa dena baino hotzagoak izan ziren. Barnealdean izotza egiten jarraitu zuen, baina kasu horretan adbekzioagatik eta ez irradiazioagatik.

Igorritako abisu horien erdia baino gehiago izotzagatik igorri ziren. Izotz-egunen kopuruak batezbesteko klimatologikoa aise gainditu zuen. Lasarten hirutan egin zuen izotza, bederatzi izotz-egun izan ziren Arrasaten eta 20 Gasteizen; 14 izotz-egun izan ziren Paganos estazioan (Arabako Errioxan).

Hilaren 3an, 4an, 7an, 9an, 10ean, 11an eta 28an tenperatura 0 °C-tik azpikoa izan zen edonon, kostaldean edo hiri inguruetan izan ezik, batez ere mendebaldekoetan. Hilaren 10etik 12ra eta 25ean izotz gogorra (≤ -8 °C) egin zuen eta hilaren 10ean hilabete osoan izandako tenperatura minimo baxuenak neurtu ziren (Iturrieta -8.7 °C, Pagoeta -8.1 °C, Navarrete -7.8 °C, Salvatierra -6.6 °C, Altube -6.1 °C, Espejo -6 °C, Arkauti -5 °C). Egun horietan kostaldetik gertu ere egin zuen izotza (hilaren 10ean, Arteaga -0.9 °C, Inurritza -1.8 °C, Oiartzun -1.1 °C; hilaren 11an, Arteaga -2.5 °C, Inurritza -1.4 °C, Oiartzun -2.1 °C).



Tenperatura maximoak igotzen joan ziren hilaren 20ra arte. Egun horretan hilabeteko tenperatura maximo altuenak neurtu ziren, Kantauri isurialdean 20 °C-tik gorakoak (Amorebieta 25.3 °C, Iurreta 25 °C, Galdakao 24.9 °C, Añarbe 24.9 °C, Mungia 24.7 °C, Ibai Eder 24.7 °C). Egun hori inflexio-puntua izan zen, ordutik aurrera tenperatura maximoek behera egin baitzuten. Otsaileko azken egunetan maximoak negukoak izan ziren. Hilaren 27an, Añanako kuadrillako zenbait lekutan izan ezik, Mediterraneo isurialdeko gainerako tokietan batez besteko tenperatura negatiboa izan zen, kostaldean 4 °C-koa bakarrik.

Intsolazioa ohikoa dena baino askoz altuagoa izan zen eta eguzki-orduen kopurua % 50 inguru handiagoa. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 145 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 154 eguzki-ordu eta Gasteizen 161 eguzki-ordu. Hilaren 10etik 19ra zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egon zen, hilaren 14an izan ezik.

Taula 2: Otsailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	9.5	10.6	13.4	12.9	11.4	6.9	11.9	10.9	8.2	11.2
Lasarte	7.9	9.2	12.6	12.3	10.9	6.1	10.6	9.4	6.9	9.9
Arrasate	6.6	8.2	10.9	10.1	8.8	4	8.7	7	4.3	7.4
Abetxuko	3.8	5.6	8.8	8.2	6.3	3.5	7.1	5.9	3.1	6.4
Paganos	5.3	7.5	8.6	9	7.2	3.8	7.6	6.7	3.9	6.2

Haizea

Hilabetea hiru zatitan bana dezakegu, haizeari dagokionez. Lehenengo zatian haize lokala ibili zen, intentsitate txikikoa. Hilabetearen erdialdean bigarren koadrantea haizea ibili zen nagusiki, indar handiagoz. Amaitzeko, hilabetearen azken herenean laugarren koadrantea haizea ibili zen eta azken egunetan indartu egin zen nabarmen.

Hilaren 1etik 10era haizea aldakor eta ahul ibili zen. Esate baterako, hilaren 9an ez zen haize-bolada gogorrik neurtu.

Hilaren 11tik aurrera presio altuak Europako erdialdean kokatu ziren, haizea hegoaldetik edo hego-ekialdetik finkatu eta indartu egin zen. Hilaren 14an Oizen haize-bolada batek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuen (104.4 km/h). Hilaren 15etik aurrera hegoaldeko haizearekin jarraitu genuen, baina ez zen hain indartsua izan; izan ere, hilaren 16an eta 17an ez zen haize-bolada gogorrik neurtu.

Hilaren 18tik 22ra haizea laugarren koadrantera aldatuz joan zen, baina egun horiek iragate-egunak izan ziren orokorrean. Hilaren 23tik aurrera ipar/ipar-mendebaldeko haizea izan zen nagusi, batez ere hilaren 26an, 27an eta 28an.



Egun horietan haizeak gogor jo zuen, bereziki Arabako hegoaldean, eta hotz-sentsazioa areagotu zuen. Hilaren 26an Paganos estazioan 105.8 km/h-ko haize-bolada bat izan zen, hilabete osoan izandako gogorrena; hurrengo egunean estazio berean 90.3 km/h-ko haize-bolada neurtu zen.

Analisia

Otsailaren 1etik 11ra

Otsailaren hasieran eguraldia egonkorra izan zen. Hilaren 1ean Azore uharteetako antizikloi indartsua, 1036 hPa-ekoa, ekialdean zabalduz joan zen, 500 hPa-eko mailan zegoen gailur bati jarraituz. Horrela, Omega txiki bat garatuz joan zen, Britainiar uharteetaraino zabaldua. Hilaren 5ean, gailurraren ekialdetik aire-masa hotz bat sartu eta mendebaldera mugitu zen hori, zirkulazio atzerakariarekin. Egoera honekin hilaren 9ra arte jarraitu genuen. Lurrazalean, hilaren 1etik 3ra presio altuek Kantauri itsasoan izan zuten beren gunea, gero Britainiar Uharteetan kokatu zen gunea eta hilaren 6tik aurrera Kantauri itsasotik Europako erdialderaino zubi antizikloniko bat eratu zen. Eguraldia egonkorra izan zen orokorrean, salbuespen batzuekin. Esate baterako, hilaren 7an aire-masa hotz txiki bat etorri zitzaigun ekialdetik, 500 hPa-eko mailan -30 °C temperaturarekin eta 850 hPa-eko mailan -4 °C temperaturarekin. Elur txikia egin zuen 500-600 metrotik gora. Hilaren 10an eta 11an izotza egin zuen eta Arabako zenbait tokitan tenperatura -9 °C ingurura jaitsi zen.

Otsailaren 12tik 21era

Hilaren 12tik aurrera antizikloia Europako erdialdean indartu egin zen. 500 hPa-eko mailan Omega blokeo indartsua ezarri zen, gailurra Frantziako iparraldean kokatuta baina apurka-apurka ekialdera mugituz. Lurrazalean antizikloi zabal bat izan zen nagusi; hilaren 14an Belgikan eta Alemanian kokatu zen, 1042 hPa-ekin, baina hori ere ekialdera mugituz joan zen. Eguraldia erabat antiziklonikoa izan zen: zerua oskarbi eta tenperatura maximoak ohikoa dena baino altuagoak, batez ere hilaren 15ean, 20an eta 21ean. Hego/hego-ekialdeko haizearen laguntzaz eta 850 hPa-eko mailan izandako tenperaturaren bultzadarekin (5 °C), Kantauri isurialdeko tenperatura maximoak 20 °C ingurukoak izan ziren.

Otsailaren 22tik 25era

Depresio atlantiko bat Norvegiako itsasora mugitu zen, Atlantikoan kokatu zen antizikloi batek bultzatuta. Antizikloiaren bat-bateko sartze horren ondorioz, goigeruzan depresioari loturiko aska askatu egin zen zirkulazio orokorretik eta depresio askatu bilakatu zen. Depresio askatu hori Iberiar penintsularen iparraldean kokatu zen gero, lurrazalean itsasaldeko fluxua nagusi, antizikloiari esker. Hilaren 23an, depresioari loturiko fronte batek lurraldea zeharkatu zuen eta euri ugari egin zuen. 850 hPa-eko mailan aire-hotza zabaltu eta elur-kota 1000 metrotik behera kokatu zen.

**Otsailaren 26tik 28ra**


Hilabetearen azken egunetan antizikloia Britainiar uharteetan kokatu zen. Depresio hotz bat Mediterraneo itsasoaren mendebaldean kokatu zen eta *Juliette* izena eman zioten. Balear uharteetan negu gorriko giroa sortu zuen depresio horrek eta Iberiar penintsularen iparraldean ere eragina izan zuen. Depresioaren eta antizikloiaren artean iparraldeko haizea ibili zen eta aire-masa hotz polar kontinental zabaldu zen gurean, 850 hPa-eko mailan -8 edo -9 °C inguruko tenperaturarekin. Prezipitazioa txikia izan zen orokorrean, baina zenbait unetan elur-kota itsas-mailan kokatu zen.

Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2023ko otsaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.





Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako auri max l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	9.5	14.2	23.9	6.0	2.3	0	55.1	35.6	3
Lasarte	7.9	13.1	24.1	3.4	-1.4	3	60.3	55.0	3
Arrasate	6.6	13.1	24.1	1.7	-3.0	9	52.6	38.1	4
Abetxuko	3.8	10.0	19.0	-1.2	-5.6	20	32.4	23.4	4
Paganos	5.3	10.7	18.2	0.6	-3.1	14	8.5	7.4	1

Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak





Prezipitazioaren jokaera

Behatutako prezipitazioa
Precipitación observadaPrezipitazio normala
Precipitación normalPrezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normalPrezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal



Muturreko balioak

Hilabete honetan ez zen efemeriderik izan.



Muturreko egoerak

Otsailean 21 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 5 elurragatik, 1 kostaldeko inpaktuagatik, 12 izotzagatik eta 3 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 1ean, eguna aurrera joan ahala hodeiak gutxituz joan ziren eta azken orduetan zerua oskarbi edo hodei gutxirekin geratu zen, mendebaldean agertu ziren behe-hodei batzuk salbu, batez ere Bizkaian. Hilaren 2an, beraz, Mediterraneo isurialdean izotz txikia egin zuen, zenbait lekutan handia. Kantauri isurialdearen barnealdeko zenbait tokitan ere egin zuen izotza, batez ere Gipuzkoan. Hilaren 3an tenperatura minimoak are baxuagoak izan ziren eta Kantauri isurialdeko hainbat eta hainbat tokitan izotza egin zuen, kostaldean eta barnealdeko mendi inguruetan izan ezik. Hilaren 4an antzeko egoera izan genuen, baina hotza ez zen hain handia izan, batez ere Kantauri isurialdean, goizaldean han behe-hodeiak ugaritu egin zirelako. Hilaren 4an, arratsalde-gau partean eta iparraldeko haizearen laguntzaz, behe-hodeiak Mediterraneo isurialdean ere zabaltu ziren eta horregatik hilaren 5ean Arabako mendi inguruetan baino ez zuen izotza egin (Herrera -1.1 °C, Kapildui -0.3 °C). Hilaren 2an eta 3an izotzarekin batera lanbroa eta lainoa agertu ziren eta hilaren 3an barnealdeko zenbait tokitan ez zuen eguerdira arte jaso.

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 2 (°C)
Iturrieta	-7.5
Pagoeta	-5.7
Albaina	-5.6
Trebiño	-5.3
Roitegi	-5.1
Berastegi	-2.7
Otxandio	-2.6

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 3 (°C)
Iturrieta	-7.7
Pagoeta	-6.1
Albaina	-5.9
Trebiño	-5.7
Roitegi	-5.5
Otxandio	-4.8
Berastegi	-4.2
Abetxuko	-3

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 4 (°C)
Iturrieta	-7
Pagoeta	-6.7
Espejo	-6.1



Salvatierra	-6
Otxandio	-5.5
Berastegi	-3.4
Abetxuko	-3.3

Osteguna, hilak 2: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 3: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 4: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 00etatik 10etara ordu lokala

- Hilaren 7an Mediterraneo isurialde osoan eta Kantauri isurialdearen barnealdean izotza egin zuen, zenbait tokitan handia. Kostaldean soilik izan ziren tenperatura minimoak 0 °C-tik gorakoak. Hilaren 7an, goizean goiz hodeiak ugarituz joan ziren eta horregatik hilaren 8an tenperatura minimoak igo ziren. Hala ere, goizean goiz eta azken orduetan barnealdeko zenbait tokitan izotza egin zuen, han-hemenka handia. Hilaren 9an hodeiak gutxitu egin ziren eta tenperatura minimoek behera egin zuten berriro, batez ere barnealdean. Izotz txikia egin zuen, beraz, zenbait lekutan handia, baita kostaldetik gertu ere (Berriatua, -0.9 °C; Inurritza, -1.3 °C). Hilaren 10ean zerua oskarbi edo hodei gutxiarekin egon zen eta izotz txiki-handia egin zuen, kostaldean ere bai (Inurritza -1.8 °C, Berriatua -1.1 °C). Hilaren 11an mendebaldean eta erdialdean tenperatura minimoak jaitsi ziren, ekialdean, aldiz, igo. Barnealdean izotz txiki-handia egin zuen, Arabako hego-ekialdeko zenbait tokitan gogorra. Gipuzkoako kostaldeko zenbait lekutan ere egin zuen izotza egun horretan. Hilaren 12an antizikloia Europako erdialdean kokatu eta hego-haizea indartu egin zen. Horregatik, tenperatura minimoak gutxi edo nahikoa igo ziren, baina Kantauri isurialdeko zenbait tokitan izotz txikia egin zuen oraindik. Hilaren 13an tenperatura minimoek ildo beretik jarraitu zuten.

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 7 (°C)
Iturrieta	-6.2
Navarrete	-6
Pagoeta	-6
Salvatierra	-5.9
Albaina	-5.8
Abetxuko	-4.5
Otxandio	-4.4
Berastegi	-3.8

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 8 (°C)
Iturrieta	-3.2
Berastegi	-2.6
Muxika	-2.3



Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 9 (°C)
Iturrieta	-5.4
Otxandio	-5.1
Goiaín	-4.8
Ozaeta	-4.4
Berastegi	-4.3
Abetxuko	-3.3

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 10 (°C)
Iturrieta	-8.7
Pagoeta	-8.1
Navarrete	-7.8
Trebiño	-7
Roitegi	-7
Albaina	-7
Berastegi	-5.4
Otxandio	-5
Abetxuko	-4
Abusu	-1.1

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 11 (°C)
Pagoeta	-8.5
Subijana	-7.8
Espejo	-7.7
Tobillas	-7
Abetxuko	-5.6
Otxandio	-5.5
Muxika	-5.2
Amundarain	-4.2

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 12 (°C)
Pagoeta	-8.3
Subijana	-7.5
Espejo	-6.6
Tobillas	-6.2
Zambrana	-5.9
Abetxuko	-3.9
Muxika	-3.4
Oñati	-2.6

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 13 (°C)
Subijana	-6.3
Espejo	-5.5
Pagoeta	-5.4
Abetxuko	-3
Otxandio	-2.9
Araxes	-1.3

Asteartea, hilak 7: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 8: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 9: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 10: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 11: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 12: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 13: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 13an hego-haizea indartu egin zen, batez ere azken orduetan, haizeguneetan 60-70 km/h inguruko haize-boladekin. Hilaren 14ean haizeak ez zuen indarrik galdu eta egunaren erdiko orduetan Oizen haize-bolada batek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuen (104.4 km/h). Haizeguneak ez diren tokietan haize-boladak 70-80 km/h ingurukoak izan ziren (Ilarduia 72.7 km/h, Zegama 70.9 km/h). Hilaren 15ean, goizaldean haizea indartsu ibili zen oraindik (Matxitxako 86.8 km/h, Zegama 70.9 km/h) baina goiza aurrera joan ahala indarra galdu egin zuen nabarmen. Hegoaldeko haizearen indarragatik eta lurraren lehortasunagatik, Kantauri isurialdean baso-sute arriskua nahikoa handia izan zen. Egun horietan baso-sute txikiak izan ziren Oiartzunen, Mallabian, Barakaldon, Zierbenan, Karrantzan eta Mundakan.

Astelehena, hilak 13: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 14: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 15: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 09etara ordu lokala.

- Hilaren 23an prezipitazio txiki-ertaina egin zuen, Kantauri isurialdean oso ugaria. Gipuzkoako kostaldean 24 orduan 60 mm baino gehiago pilatu ziren. Egunaren hasieran elur-kota 500-700 metrora egon zen, baina erdiko orduetan igo eta 700-900 metro inguruan kokatu zen. Arratsaldean elur-kotak behera egin zuen berriro eta 500-600 metrora jaitsi zen, azken orduetan 500 metro inguruan egon zen. Hilaren 24an, goizaldean hodeiak azkar gutxitu ziren eta Mediterraneo isurialdean eta Kantauri isurialdeko zenbait tokitan izotz txiki-handia egin zuen. Hilaren 25ean, goizaldean zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egon zen eta Mediterraneo isurialdean izotz txiki-handia egin zuen berriro. Kantauri isurialdeko zenbait tokitan ere izotza egin zuen, batez ere Gipuzkoako barnealdean. Hilaren 26an hotz handia egin zuen eta iparraldeko haizeak hotz-sentsazioa areagotu egin zuen bere abiaduraz. Hala ere, goizaldean hodeiak ugaritu egin ziren eta tenperatura minimoak ez ziren aurreko egunetan bezain baxuak izan; Arabako zenbait lekutan izotz handia egin zuen oraindik. Goizaldean eta goizean goiz prezipitazioa egin zuen; egunaren hasieran elur-kota 1000-1200 metrora egon zen, goizean goiz 1000 metrotik behera kokatu eta 700-800 metro inguruan egon zen. Hilaren 27an



elur-kota itsas-mailaraino jaitsi zen eta Donostian, Kontxako hondartzan, zuritu zuen. Iparraldeko haizea bizi ibili zen egun horretan eta elurra era irregular batean pilatu zen; pilatutakoa ez zen aipagarria izan orokorrean. Egunaren amaieran, elur-kota igo egin zen eta atertzera egin zuen nabarmen. Hilaren 28an, egunaren lehenengo partean, noizbehinka elur txikia egin zuen. Arratsaldean ateri eutsi zion orokorrean eta elur-kota gorago kokatu zen, temperatura maximoak aurreko egunekoak baino bizpahiru gradu altuagoak.

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 24 (°C)
Iturrieta	-7.1
Pagoeta	-6.5
Albaina	-5.8
Roitegi	-5.6
Berastegi	-4.1
Orduña	-2.9
Abetxuko	-1.4

Estazioa	Tenperatura minimoa, hilak 25 (°C)
Iturrieta	-8.4
Pagoeta	-7.3
Navarrete	-6
Abetxuko	-3.6
Berastegi	-3
Otxandio	-2

Osteguna, hilak 23: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.
Ostirala, hilak 24: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.
Larunbata, hilak 25: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 00etatik 10etara ordu lokala.
Igandea, hilak 26: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.
Astelehena, hilak 27: Abisu Horia elurragatik 00etatik 24etara ordu lokala.
Asteartea, hilak 28: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea:* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.